



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urtarrilaren 22a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzkoa. Zuzenketak erretiratzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, alarma-egoerak polarizazio soziopolitiko gero eta handiagoan dauzkan eraginei buruzkoa eta herritarren harremanetan dituen ondorioei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, gutxieneko diru-sarrereri eta errenta bermatuari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, koordainketa farmazeutikoa kentzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (5. or.).

—Galdera, diru-sarrera nahikorik ez duten guraso bakarreko familientzako etxebizitzaren alokairurako laguntzen deialdiari buruzkoa. Ramón Alzorritz Goñi jaunak egin du (5. or.).

—Galdera, mendi-eremuetan osasun-garraioa bermatzeko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, unibertsitate publikoko gradu-ikasketetan lehenengo matrikulen doakotasuna ezartzeko helburuari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzeko Egako adarraren obrei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).

—Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren aurrekontuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, Nafarroan familiaren laguntzarik gabeko gazte migratzaileei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, EH Bildu alderdi politikoarekiko desberdintasun etikoei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren aurrekontu-partida zehatzei buruzkoa, horietara 12.500.000 euro bideratu baitira gastua handitzeko. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Basozainen Zerbitzuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, adingabeen zaintzei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, KYB Advanced Manufacturing Spain SA, KYB Suspensions Europe eta KYB Esteeering Spain enpresentzako laguntzei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (13. or.).
- Galdera, berotegi-efektuko gas isuriei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, toki entitateek bidalitako transakzio-hitzarmenei buruz Herrilurren Zerbitzuak eman gabe dituen txostenei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko Administrazioan software librerako migrazioa sustatzeko eta ezartzeko neurriei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, 0-3 zikloari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (17. or.).
- Galdera, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Foru parlamentariak 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsari gordinak (20. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2021ean jasoko dituzten ordainsariak (21. or.).
- Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariatz egiten dituztenen-gatiko ordainsarien araubidea 2021eko urterako (21. or.).
- Talde parlamentarioek 2021ean jasoko dituzten dirulaguntzak (22. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (22. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko (23. or.).
- 1/2021 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (27. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024) (36. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK ERRETIRATZEA

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 19an eginiko bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

Lehena. Adieraztea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak erretiratu izanaren berri izan duela.

Bigarrena. Eskatzea, Lehendakartzaren apirilaren 11ko 14/2016 ebazpenarekin bat, 2021eko urtarrilaren 22rako aurreikusita zegoen Ekonomia

eta Ogasuneko Batzordeko bilera bertan behera gera dadin.

Hirugarrena. Legebiltzarreko Erregelamenduko 131. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari jakinaraztea.

Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, alarma-egoerak polarizazio soziopolitiko gero eta handiagoan dauzkan eraginei buruzkoa eta herritarren harremanetan dituen ondorioei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, alarma-egoerak polarizazio soziopolitiko gero eta handiagoan dauzkan eraginei buruzkoa eta herritarren harremanetan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Bizikidetzaren demokratikoaren eta aniztasun politikoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa, Nafarroako Gobernuari zuzendua. Alarma-egoerak polarizazio soziopolitiko gero eta handiagoan dauzkan eraginei buruzkoa eta herritarren harremanetan dituen ondorioei buruzkoa. Ikuspegia eta horri heltzeko neurriak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Interpelazioa, gutxieneko diru-sarrereri eta errenta bermatuari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko interpelazioa, gutxieneko diru-sarrereri eta errenta bermatuari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Gutxieneko diru-sarrereri eta errenta bermatuari buruzko interpelazioa, Nafarroako Gobernuari zuzendua.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

F saila:
GALDERAK

Galdera, koordainketa farmazeutikoa kentzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, koordainketa farmazeutikoa kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten

du, Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

16/2012 Legegintzako Errege Dekretua onestearekin batera, PPko Gobernuak osasun-arloko murrizketak ezarri zituen, 12.000 milioikoak izatera iristen direnak, eta kotizaziopeko pentsioen hartzaile guztiei koordainketa bat ezarri zien, botikak Osasun Sistema Nazionaletik farmazian erretiratzeagatik. Espainiako Gobernuak 6 milioi pertsona baino gehiagorentzat koordainketa farmazeutikoa ezabatuz hasi du 2021. urtea, eta horren bidez beste oztupo bat kendu du baliabide gutxien dituzten biztanleria-sektore batzuek sendagaiak eskuratu ahal izateko.

Zenbat pertsona dira Nafarroako Foru Komunitatean koordainketa farmazeutikoa kentzearen onuradun eta pertsona horiek zenbat diru ordaintzea saihestuko dute?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, diru-sarrera nahikorik ez duten guraso bakarreko familientzako etxebizitzaren alokairurako laguntzen deialdiari buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, diru-sarrera nahikorik ez duten guraso bakarreko familientzako

etxebizitzaren alokairurako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Apirilaren 14ko 153/2020 Foru Aginduaren bidez, gastua baimendu eta 2020ko deialdia onesten da diru-sarrera nahikorik ez duten familia gurasobakarrei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko, eta Eskubide Sozialetako kontseilariaren

uztailaren 257/2017 Foru Agindua aldatzen da, haren bidez oinarri arautzaileak onetsi baitziren 2017tik 2020ra bitarteko kuotetarako diru-sarrera nahikorik ez duten familia gurasobakarrei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko.

Nola baloratzen dituzu diru-sarrera nahikorik ez duten guraso bakarreko familientzako etxebizitzaren alokairurako laguntzen deialdia eta horrek onuradunengan izan den eragina?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, mendi-eremuetan osasun-garraioa bermatzeko neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, mendi-eremuetan osasun-garraioa bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Santos Indurain Orduña andreak ahoz erantzun dezan:

Osasun-garraioari buruzko araudiaren arabera, Izaban eta Ezkarozen (mendialdean) kokatutako baseetako Oinarrizko Bizi Euskarriko (OBE) anbulantziek lau gurpileko (4x4) trakzioa izan behar dute. Hala ere, baldintza hori ez da betetzen ari.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak bermatze aldera mendi-eremuetako osasun-garraioa egiten dela Nafarroako araudia betetzen duten eta ibilgailuetan erabateko trakzioa duten anbulantziekin, araudian jasotako gainerako baldintzak betetzeaz gainera?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, unibertsitate publikoko gradu-ikasketetan lehenengo matrikulen doakotasuna ezartzeko helburuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, unibertsitate publikoko gradu-ikasketetan lehenengo matrikulen doakotasuna ezartzeko helburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel

Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

“Bizikidetzako eta Berdintasunezko Legegintzaldi Berritzaile eta Aurrerakoirako Programakordioa (2019-2023)” agiriaren 28. puntuak honako hau zioen:

“Unibertsitate publikoko gradu-ikasketen lehenbiziko matrikulen doakotasuna eta geroko matrikuletan errendimendu akademikoari sariak bermatzeko beka-sistema ezarri gradualki”.

1.- Zergatik ez duzue orain arte bete unibertsitate publikoko gradu-ikasketetan lehenengo matrikulen doakotasuna ezartzeko helburua?

2.- Zer egingen duzue legegintzaldia amaitu bitarte helburu hori betetzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzeko Egako adarraren obrei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasea handitzeko Egako adarraren obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun diezaien:

Zergatik ez dira oraindik hasi Nafarroako Ubidearen lehen fasea handitzeko Egako adarreko obrak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren aurrekontuari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Migrazio Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Urtarrilaren 3an, Nafarroako Gobernuak prentsa-ohar bat argitaratu zuen, non ziurtatzen baitzen Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren 2021eko aurrekontua % 8,7 inguru handitu dela 2020koarekin alderatuta.

1.- Zer aurrekontu izan zuen Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak 2020an?

2.- Zer aurrekontu du Departamentuak 2021ean?

3.- Zenbatean handitu da Departamentuaren 2021erako aurrekontua, 2020an izan zuenarekin alderatuta?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Nafarroan familiaren laguntzarik gabeko gazte migratzaileei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan familiaren laguntzarik gabeko gazte migratzaileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Familiaren laguntzarik gabeko zenbat gazte daude gaur egun Nafarroan?

2.- Familiaren laguntzarik gabeko zenbat adingabe migratzaile daude gaur egun Nafarroan adingabeak babesteko sistema batean, adin-nagusitasunera aurten iritsiko direnak eta, beraz, sistema hori utziko beharko dutenak?

3.- Familiaren laguntzarik gabeko zenbat gazte migratzailei eman nahi dio erantzuna Kideak programak aurten?

4.- Zein egutegi aurreikusi du Departamentuak programa hori garatzeko? Zehaztu itzazu datak eta ezarritako helburuak.

Iruñean, 2021ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, EH Bildu alderdi politikoarekiko desberdintasun etikoei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, EH Bildu alderdi politikoarekiko desberdintasun etikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2020ko abenduaren 29an, kontseilariak publikoki adierazi zuen "askoz egingarriagoa dela, bai jarrerari dagokionez, bai programaren bat-etortzeari dagokionez, EH Bildurekin egindako ituna, dauzkagun desberdintasun etiko eta politikoak gorabehera".

Zer desberdintasun etiko ditu kontseilariak EH Bildu alderdi politikoarekin?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Osasun Departamentuaren aurrekontu-partida zehatzei buruzkoa, horietara 12.500.000 euro bideratu baitira gastua handitzeko.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuaren aurrekontu-partida zehatzei buruzkoa, horietara 12.500.000 euro bideratu baitira gastua handitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

2020ko urriaren 20an, "COVID-19 Estatuko Administrazioaren transferentzia" izeneko 110000-11000-4000 000 partidako 12.500.000 euro bideratu ziren Osasun Departamentuaren "COVID-19 Zenbait gastu" izeneko 540000-52000-2269-311103 partidara, azken horren gastua handitzeko.

Partidaren zenbatekoa oso handia da "zenbait gastu" kontzeptuaren bidez soilik justifikatzeko, are gehiago aurrekontuen programazioak ahalbidetzen duenean xehetasun osoz jasotzea 12.500.000 euro horiek zer kontzeptu ekonomikotarako erabiliko diren.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Osasun Departamentuaren zein aurrekontu-partida zehatzetara bideratu dira gastu-handitzearen 12.500.000 euroak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 12a

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Basozainen Zerbitzuari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Basozainen Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 14.2 artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 6an aurkeztu zen Foruzaingoaren Plan Estrategikoa aztertzerakoan, ikusi dugu AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) ataleko "Antolamendu-egitura eta eginkizunen garapena" apartatuan (38. orrialdean) Basozainen Zerbitzua mehatxutzat hartzen dela

Foruzaingoaren Ingurumen Babeserako Brigadarako.

Oso bitxia eta kezagarria da AMIA azterketan Basozainen Zerbitzua mehatxutzat hartzea Foruzaingoaren Ingurumen Babeserako Brigadarako. Foruzaingoak eta Basozainen Zerbitzuak eginkizun-maila desberdinetan egiten dute lan, nahiz eta gai batzuetan bat egiten duten. Basozainen Zerbitzuaren eginkizunak, ingurumenaren kudeaketari dagokionez, Foruzaingoarenak baino zabalagoak eta anitzagoak dira, bien eskumenei erreparatzen badiegu.

Gizarteak zerbitzu publikoa, eraginkortasuna, eta funtzionamendu egokia eskatzen du zerbitzuak ematerakoan, eta, halaber, leialtasuna, konfiantza eta lankidetzak nagusitu behar dira Administrazioaren egitura desberdinen artean.

Ulertezina da Foruzaingoak uste izatea Nafarroako Gobernuaren Basozainen Zerbitzua mehatxu bat izan daitekeela, bi kidego horien arteko lankidetzak sendotasuna eta aukerak ekarri beharko lituzkeenean.

Hori dela eta, hauxe galdetu nahi diogu Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari:

Plan horrek esan nahi du Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak ikerketari buruzko eskumenak kendu nahi dizkiola Basozainen Zerbitzuari Foruzaingoak bakarrik egiteko lan hori?

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Basozainen Zerbitzua indartzeko? Irudi korporatiboa emanen al dio, herritarrek behar bezala identifikatu dezaten?

Basozainen Zerbitzuak ingurumenarekin loturiko delituak ikertu eta jazartzeko dituen eskumenak errespetatuko al dira, araudiak aitortzen dizkion moduan, edota Administrazioaren egitura desberdinen arteko lehia ikusi behar dugu?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, adingabeen zaintzei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, adingabeen zaintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Adingabeen zenbat zaintza egin dira Foru Komunitatean 2008an, 2009an, 2010an, 2011n, 2012an, 2013an, 2014an, 2015ean, 2016an, 2017an, 2018an, 2019an eta 2020an?

2. Urte horietako bakoitzean, adierazi zenbat kasutan hartu den adingabe horien tutoretza.

3. Urte horietako bakoitzean, adierazi zenbat kasu ziren bakarrik dauden adingabe atzeritarrenak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-

tan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar pasa dira 2018an, 2019an eta 2020an autonomia-prozesuetan dauden gazteei laguntzeko zerbitzura?

2. Adierazi, urte horietako bakoitzerako, zerbitzuan egon diren gazte guztietatik zerbitzu horretara pasa diren bakarrik dauden adingabe atzerritarren ehunekoa.

3. Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar geratu dira adin-nagusitasunera iritsita zerbitzu hori jaso ezinik, Nafarroako Gobernuak haien tutoretza bere gain hartu ez duelako –aurretik adingabekoentzako behaketa eta harrera zentro batean sarturik egon diren arren– eta, beraz, zorroak ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, KYB Advanced Manufacturing Spain SA, KYB Suspensions Europe eta KYB Esteering Spain enpresentzako laguntzei buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, KYB Advanced Manufacturing Spain SA, KYB Suspensions Europe eta KYB Esteering Spain enpresentzako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan KYB Advanced Manufacturing Spain SA, KYB Suspensions Europe eta KYB Esteering Spain enpresek, egiturazko edo teknologiako inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I-G-B laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

- KYB Advanced Manufacturing, KYB Suspensions Europe eta KYB Esteering Spain enpresek zer zerga-onura (I+G+B jarduerengatik kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria, bestelako kenkariak...) eta zer zenbatekoak aplikatu dituzte azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitopenetan?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, berotegi-efektuko gas isuriei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, berotegi-efektuko gas isuriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

– Zenbat berotegi-efektuko gas isuri dira Nafarroan 2007 eta 2020 artean?

– Emisioen zati bat sektore finkoek –Emisioen Erregimenean sartuta daudenek (energia, zementu-fabrikak, industria eta abar)– edo sektore lau-soek –Emisioen Erregimenean sartuta ez daudenek (garraioa, berogailuak, nekazaritza eta abar)– eragiten dute. Zein dira ehuneko finkoa eta ehuneko lausoa urte horietako bakoitzean?

– Zein da Emisioen Erregimeneko sektore finkoetan isuriak egiten dituzten enpresetako titula-

rren zerrenda, titular horiek entitateak zein partikularrak izan?

Galdera guztietan adierazitako urte bakoitzerako erantzutea eskatzen da.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, toki entitateek bidalitako transakzio-hitzarmenei buruz Herrilurren Zerbitzuak eman gabe dituen txostenei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, toki entitateek bidalitako transakzio-hitzarmenei buruz Herrilurren Zerbitzuak eman gabe dituen txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Indarrean dagoen Nafarroako legeriak ezartzen duenez, toki-erakundeek herri-ondasunak defendatu behar dituzte, ondasun horien gainean dauden kargen gaineko hainbat akzio ahalbidetuz, ondasun horiek berreskuratzeko eta luditzeko,

kalte-ordainen bidez, hitzarmen transakzio-hitzarmenak izapidetuz, eta abar.

Une honetan, hainbat toki entitate transakzio-hitzarmenei buruzko espedienteak izapidetzen ari dira. Adibidez, Lesakako Udala 38 eta 40 espediente bitarte izapidetzen ari da, garapen-fase desberdinetan, eta horietako batzuk 2-3 urte daramatzate zabalik, Nafarroako Gobernuo Herrilurren Zerbitzuaren txostenen zain.

Hori dela-eta, ondoko galderak egiten ditugu:

– 2015. urteaz geroztik, zenbat toki entitatek bidali dituzte Herrilurren Zerbitzura nahitaezko txostena egiteko hitzarmenak, kasuan kasuko osoko bilkurek haiek onetsi ondoren eta ukitutako partikularrek sinatu ondoren?

– Epe horretan, zein da zerbitzuak txostena emateko batez besteko erantzun-denbora?

– Horietako zenbat daude gaur egun zerbitzu horren erantzunik jaso gabe? Zein toki entitateenak dira?

– Zenbat hitzarmen daude Nafarroako Gobernuaren onespeneren zain une honetan, mugarriak jarri, planoak egin eta interesdunak ados jarri ondoren?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Foru Komunitateko Administrazioan software librerako migrazioa sustatzeko eta ezartzeko neurriei buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Foru Komunitateko Administrazioan software librerako migrazioa sustatzeko eta ezartzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko Administrazioan software librerako migrazioa sustatzeko eta ezartzeko?

- Zer neurri aurreikusi ditu Gobernuak legegintzaldi honetan Foru Komunitateko Administrazioan software librerako migrazioa sustatzeko eta ezartzeko?

Iruñean 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoa zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google tasa) eta finantza-transakzioen gaineko zergari (Tobin tasa) egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari (Google Tasa) buruzko urriaren 15eko 4/2020 Legearen azken xedapenetako bosgarrenak eta Finantza-transakzioen gaineko zergari buruzko (Tobin Tasa) urriaren 15eko 5/2020 Legearen azken xedapenetako laugarrenak –bi lege horiek urriaren 16ko EAOn argitaratu ziren– araupetze bera ezartzen dute, dagokien tributuaren aplikazio-eremua arautzen baitute:

“Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa egokitzea.

“Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Batzorde Misto eta Nafarroarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren Batzordea bilduko dira, maiatzaren 23ko 1212002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren egokitzapena erabakitzeke, haren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, eta abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren egokitzapena erabakitzeke, haren 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz”.

Zerga berri horien bidez beste urrats bat gehiago –baina ez nahikoa– eginen da zerga-sistema eta zerga-sistema zuzenagoa lortzeko bidean. Hitzarmen Ekonomikoa zerga berri horietara egokitzea adosteko hiru hilabeteko epea amaitzear dagoenez, honako hau jakin nahi dugu:

– Zer harreman izan dira Nafarroako eta Estatu administrazioetako ordezkarien artean bi zerga horiei aplikatzeko zaien konexio-puntua

adosteko, bi zerga horiek Nafarroan aplikatu ahal izateko Hitzarmen Ekonomikoan beharrezkoa den aldaketa egite aldera?

– Gobernuak uste du aipatu legeetan ezarritako hiru hilabeteko epean lortuko dela administrazioen arteko akordiorik?

– Negoziazioak zerga horiek indarrean sartu eta haratago luzatuko balira, lortu beharreko akordioak jaso beharko lituzke akordioa lortu aurretiko zerga-egitateetatik eratorritako administrazioen arteko ondorioak?

– Gobernuak noiz bidaliko du edo ditu Parlamentura zerga horiek Nafarroako esparruan arautuko dituen foru lege proiektua edo arautuko dituzten foru lege proiektuak?

– Gobernuaren kalkuluen arabera, zenbat diru bilduko da zerga horiek aplikatuta?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, eskola-mapa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

• Zergatik ez da aurreikusten eskola-mapa aldatzea Nafarroako Gobernuaren 2021erako araugintza planean? Nolanahi ere, aldaketa aurreikusita badago, noiz aurreikusten da hura jendaurrean jartzeko prozedura hastea eta behin betiko onestea?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 0-3 zikloari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, 0-3 zikloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

0-3 zikloari dagokionez:

- Noiz sortuko da 0-3 zerbitzu espezifikoa Hezkuntza Departamentuan?

- Noiz aldatuko da Nafarroako Gobernuaren haur-eskolen titulartasuna, Hezkuntza Departamentuak zuzenean kudea ditzan?

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak berak eta Iruñeko Udalak Iruñeko haur-eskoletan batera eskaintzen duten euskarazko plaza-kopurua gutxitu ez dadin eta eskaintza modu orekatuan handitu dadin?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, espetxe-osasunaren eskumena hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2020ko azaroaren 26an, Madrilera egindako bidaietako batean, kontseilariak berak publikoki adierazi zuen Nafarroak espetxe-osasunaren eskumena "berehala" hartuko zuela bere gain.

Zer esan nahi du kontseilariarentzat "berehala" hitzak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentariak 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du foru parlamentarien 2021. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea foru parlamentarien ordainsariak gehikuntza izanen dutela, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenen ehuneko 0,9koa, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarria.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide

diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 60.880,12 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 54.114,20 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 45.659,88 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 40.585,72 eurokoa izanen dela 2021. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2021. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideen aplikazioa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 74.040,82 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsari gordinak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2021. urtean jasoko dituzten ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 55.440,70 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 41.704,60 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 33.745,32 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 33.745,32 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2021ean jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak emandako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden ehuneko 0,9koa.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2021ean jasoko dituzten

ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 147,62 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 174,56 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariatz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea 2021eko urterako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat egin du foru parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen bidaia ofizialengatiko ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Mantentzea, 2021erako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariatz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 51,00 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 81,60 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,32 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2021erako: Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean, 53,34 euro egun bakoitzeko; eta atzerrira eginiko bidaiak direnean, 91,35 euro egun bakoitzeko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Talde parlamentarioek 2021ean jasoko dituzten dirulaguntzak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioentzat onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioentzako dirulaguntzek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratudunek beren mailaren arabera 2021eko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko jarduneko buruak, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen ordainsariei ehuneko 0,9ko gehikuntza orokorra izanen dutela, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat ezarritako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldat 2021. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Sailkapen-maila	Urteko zenbatekoa
A	27.682,20 euro
B	23.288,16 euro
C	19.318,46 euro
D	16.824,78 euro
E	14.799,26 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2021ko urtarrilaren 18ko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri dio, baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea 2021eko urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuran eginen direla urtarrilaren 13ko 1/2021 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru Lege-dekretu horren bidez zenbait neurri onesten dira koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. (10-21/DLF-00001).

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2021 Foru Lege-dekretua, urtarrilaren 13koa, zerga arloko zenbait neurri onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko

COVID-19ak eragindako osasun publikoaren larrialdi egoera gertatu zenetik, zeinaren ondorioz Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia egoera deklaratu baitu eta Espainiako lurralde osoan alarma egoera deklaratu baita martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Gobernuak arlo bateko eta besteko neurriak hartuz eta onetsiz joan da, osasun larrialdiak eragindako ondorio larriak arindu nahian.

Neurri horien artean nabarmendu beharrekoak dira zerga arlokoak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren bidez esleituriko eskumenak erabiliz hartu direnak.

Besteak beste, 7/2020 Foru Legearen bidez, 4/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez eta 5/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez, neurri fiskalak onetsi dira koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Deskonfinamendu prozesua eta alarma egoera bukatu, Espainia normaltasun berriaren etapan sartu zen. Fase horretan, botere publikoek eta osasun arloko agintariek neurriak hartzen jarraitu zuten, agerraldiak kontrolatzeko eta kutsadurak murrizteko asmoz.

Hala ere, udazkenarekin batera, kasuen kopuruak gora egin du Nafarroan, Espainiako gainerako lekuetan eta Europako herrialde gehienetan bezala, eta horrek berekin ekarri du neurri sorta berri bat abian jartzea, oinarri harturik alarma egoera berria, zeina urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu baitzen SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapenari aurre egiteko.

Foru lege-dekretu honen bidez, zerga arloko zenbait neurri berri ezartzen dira COVID-19ak jarduera ekonomikoen esparruan izandako eraginari aurre egiteko. Izan ere, jarduera murriztearekin batera, sarrerak murriztu dira, eta horren ondorioz oso zaila gertatzen ari da sortzen diren gastuei eta ordainketei erregulartasunez erantzutea.

Hori kontuan harturik, eta enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen finantza arazoak neurri batean apaltzeko asmoz, zerga arloko zorren ohiz kanpoko beste geroratze bat ezartzen da, apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen bidez araututakoaren baldintza beretan. Geroratzen ahalko diren zorrak autolikidazio hauei dagozkienak dira: 2020ko laugarren hiruhilekoak, 2021eko lehengo hiruhilekoak, 2021eko urtarrilekoak, otsailekoak eta martxokoak, eta 2020ko abendukoak.

Era berean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituztenak ez dira beharturik egonen 2020ko laugarren hiruhilekoari dagokion ordainketa zatikatua egitera.

Bestalde, zerga-oinarria sozietateen gaineko zergaren arabera zehazten diren zerga pertsonaletan, aldatu egiten da galerengatiko kenkariak egiteko eskatzen den antzintasuna, baldin eta galera horiek gertatu badira kredituek balioa galtzeagatik zordunen balizko kaudimengabeziaren ondorioz. Hala, enpresa txikien eta autonomoen kasuan, eskatuko da hiru hilabete igaro izana obligazioaren muga-egunetik zergaren sorzapenera arte (orain arte sei hilabete ziren), hori guztia galera horiek azkarrago sartu ahal izan dituzaten zerga-oinarrian 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan. Aldi berean, aurreikuspen hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ere jasoko da, zor diren diru kopuruak lehenago hartu ahal izan daitezen gastu kengarri gisa kapital higiezinaren etekina kalkulatzen denean.

Azkenik, zerga pizgarri berri bat ezartzen da, bilatzen duena sektore turistikoari, ostalaritzari eta merkataritzari lotutako jarduera ekonomiko jakin batzuk egiteko lokalak errentan jartzen dituzten pertsona fisikoek borondatez murriztea 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko alokairu-errentak. Horrela, kapital higiezinaren etekina kalkulatzen denean, bidezkoa izanen da hilabete horietan adostutako errentaren murrizketa gastu kengarri gisa hartzea.

Foru lege-dekretu honen egitura hau da: bost artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

Honaino azaldu diren arrazoiek justifikatzen dute foru lege-dekretu hau onestea, behar-beharrezkoa baita aipatu neurriak berehala hartzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko urtarrilaren hamahiruan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorritz,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Zerga arloko zorrak salbuespenez geroratzea.

1. Jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten nortasun juridikorik gabeko pertsona eta erakundeen kasuan, 2020an eragiketen bolumena 6.010.121,24 euro baino handiagoa izan ez dutenen zerga zorrak —2021eko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitarte borondatez aurkeztu eta ordaindu beharreko aitopen-likidazioei edo autolikidazioei dagozkienak— borondatezko epean geroratzen ahalko dira, konturako ordainketarik egin gabe, bermerik eskatu gabe eta berandutze interesik sortu gabe, hori guztia artikulua honetan xedatutakoarekin bat, eta baldin eta eskatzaileak, gerorapena emanda ere, zerga arloko betebeharrak betetzen baditu gerorapenaren indarraldi guztian.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), alde batera utzita egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra, eragiketen bolumena kalkulatu da talde horretako kide diren entitate guztiak aintzat hartuta, kontuan harturik kontabilitateko araudia aplikatuta egoki diren ezabaketak eta sarrera berriak. Irizpide hori bera aplikatuko da pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo ezkontidearekin edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin batera (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz albokoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean badago bazkide diren beste entitate batzuei dagokienez, alde batera utzita entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egiteko betebeharra.

2. Salbuespenezko geroratze hori aplikatzen ahalko zaie, orobat, Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 48.3 artikuluko b) eta d) letretan adierazitako zerga zorrei (erregelamendu hori uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

3. Kopuru hau adinako edo hortik beherako zorrak ezin izanen dira geroratu:

a) Pertsona fisikoak diren zergadunak: 100 euro.

b) Pertsona fisikoak ez diren zergadunak: 300 euro.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zor geroratuak ordainketa hiru hilabetez etengo da, aitorpenaren eta ordainketaren borondatezko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretatik aurrera, zatikatuta ordainduko dira, zenbateko bereko hileko lau kuotatan.

5. Geroratze horien eskaera geroratze eredu ofiziala erabiliz eginen da, soilik Nafarroako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez aurkeztuta, eta Diru-bilketa Zerbitzuko titularrak ebatziko du.

6. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 4. atalean xedatutakoaren ondorioetarako, xedapen honen babesean emandako geroratzeak ez dira inola ere zenbatuko, ez horiek emateko, ezta etorkizuneko geroratzeak emateko ere.

7. Emandako geroratzeak betetzen ez badira, berandutze-interesak likidatuko dira, aurkeztu eta ordaintzeko borondatezko epea bukatu eta bihar-munetik hasita.

2. artikulua. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuak.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten horiek ez dira beharturik egon 2020ko laugarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuak autolikidatzera eta ordaintzera.

3. artikulua. Kredituek balioa galtzearen ondoriozko galeren kengarria egitea 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan, galera horiek zordunen balizko kaudimengabezia-egoeren ondorioz gertatzen direnean.

Sozietateen gaineko zergako, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergako edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunek, errentak lortzen badituzte Espainian kokatutako establezimendu iraunkor baten bidez, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 12. artikuluko baldintzak betetzen badituzte, 2020an eta 2021ean hasten diren zergaldietan, kengarriak egiten ahalko dituzte kredituek balioa galtzearen ondoriozko galerengatik, galera horiek zordunen balizko kaudimengabezia-egoeren ondorioz gertatzen direnean, eta, betiere, baldin eta, zerga sortzen den unean, foru lege

horren 20.1.1.a) artikuluan aipatzen den obligazioaren muga-egunetik hiru hilabete igaro badira.

4. artikulua. Errentarien zorrak kobrantza zalantzarik saldotzat hartzeko epea murriztea.

Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamenduaren 12.1.e.b') artikuluan sei hilabeteko epea finkatu bazen ere, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan, epe hori hiru hilabetera murriztuko da.

Erregelamendu bidez, artikulu honetan adierazitako epea aldatzen ahalko da.

5. artikulua. Alokairu errentak jaitea sustatzeko zerga pizgarria.

Sektore turistikoari, ostalaritzari eta merkataritzari laguntzeko zerga arloko presako neurri batzuk onetsi zituen abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege-dekretuaren 1.1 artikuluan adierazitako errentatzaileak alde batera utzita, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan arabera etxebizitzarako edo industriarako ez den beste erabilera baterako errentamendu kontratu bat sinatu duten errentatzaileek, baldin eta errentariak higiezin hori erabiltzen badu bertan jarduera ekonomiko bat gauzatzeko, zehazki, jarduera ekonomikoaren gaineko zergako tarifen lehenengo ataleko 755., 969., 972. eta 973. taldeetan edo 6. sailean sailkatuak daudenetako bat (tarifa horiek maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren), kapital higiezinaren etekinak kalkulatzeko orduan, zilegi izanen dute 2021. urtean gastu kengarri gisa sartzea 2020ko martxoaren 14tik aurrera borondatez adostu duten alokairu errentaren murrizketa, hain zuzen, 2021eko urtarrilean, otsailean eta martxoan sortutako hilekoei dagokiena.

Errentatzaileak, zergaren aitortzea egiten duenean, bereizita jaso beharko du aurreko paragrafoan adierazitako gastu kengarriaren zenbatekoa, pizgarri horren konturakoa. Horrez gainera, errenta murriztu zaion errentariaren identifikazio fiskaliko zenbakia adierazi beharko du.

Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta errentariak alokairu errentaren murrizketa gero konpentsatzen badu hurrengo errentak edo beste prestazio batzuk igoz, edo errentaria errentatzailearekin lotua dagoen pertsona edo entitate bat baldin bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo biak bigarren mailara arteko odol edo ezkontza ahaideak badira (bigarren mailakoak barne),

lerro zuzenean edo albokoan, are ezkontideak ere.

Xedapen ingargabetzailea.

Indarrik gabe gelditzen da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bigarren atalean dauden guztientzako oharren 1. oharra (foru lege horren bidez, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onetsi ziren).

Azken xedapenetako lehena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren aldaketa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 51.11 artikulua ondotik ematen den testua izanen du (testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen):

“11. Artikulu honetan ezarritakoa ez da aplikatu entitate ez-egoiliarra edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren barruko beste estatu baten egoiliarra denean edo han kokatzen denean, betiere zergadunak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoak gauzatzen dituela, edo inbertsio kolektiboko erakunde bat dela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65 (EE) Zuzentarauan arautua (zuzentarau horren bidez balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzen dira), foru lege honen 52.4 artikuluan azaltzen direnez bestelakoa, eta, Europar Batasuneko estatu batean eratua izanik, helbidea bertan duena”.

Azken xedapenetako bigarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietatik aurrerako ondorioekin, eta betiere Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri ba-

tzuk hartzeko abenduaren 29ko 21/2020 Foru Legeak indarra hartzen duenean oraindik bukatu ez badira, honelako testua izanen du Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 82.2 artikulua:

“2. Kapitulu honetan ezarritakoa ez da aplikatu entitate ez-egoiliarra edo establezimendu iraunkorra Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren barruko beste estatu baten egoiliarra denean edo han kokatzen denean, betiere zergadunak egiaztatzen badu jarduera ekonomikoak gauzatzen dituela, edo inbertsio kolektiboko erakunde bat dela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65 (EE) Zuzentarauan arautua (zuzentarau horren bidez balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzen dira), foru lege honen 97 artikuluan azaltzen direnez bestelakoa, eta, Europar Batasuneko estatu batean eratua izanik, helbidea bertan duena”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da, baliozkotu dezan, bat etorritik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatuan ezarritakoarekin.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du, bertan aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 13an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria Javier Remírez Apesteguía

1/2021 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak honako Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria igorri du: “1/2021 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena”.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea urtarrilaren 13ko Tributu Harmonizazioari buruzko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez aldatzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2021 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta

arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitortzea eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkideko aldaketa batek behartzen badu Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei “tributu harmonizazioarako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie baldin aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio badira, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Estatuan, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak aldatzen du edulkoratzaille erantsiak, naturalak nahiz gehigarri edulkoratzailleak, dituzten edariei aplikatu beharreko zerga-tasa, aurrerantzean ehuneko 21eko zerga-tasa orokorra izanzen baitute; hain zuzen ere neurri hori konpromiso sozial baten ondorioa da, edari horien kontsumoa arrazionalizatzeko eta arduratsua izan dadin sustatzeko, bereziki haur eta gazteen artean.

Era berean, azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretuak, enpresen kaudimenari eta energiaren sektoreari laguntzeko presako neurriei buruzkoak, tributuen arloko bi neurri hartzen ditu aldi baterako, pandemia kontrolatzeko bigarren fasean osasun sistemaren erantzuna ziurtatzearren, kontuan hartuta populazioak nahitaez erabili behar dituela maskara kirurgikoak, erabili eta botatzekoak.

Horrela, 2020ko azaroaren 1etik 2021eko apirilaren 30era bitarte, balio erantsiaren gaineko zergan mantentzen da ehuneko 0ko zerga-tasaren aplikazioa COVID-19aren aurkako osasun-materialaren barne entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, horien hartzaileak entitate publikoak, irabazi-asmorik gabekoak eta ospitaleak direnean. 2020ko urriaren 31 arte, aplikazio hori araututa egon zen Ekonomiari eta enpleguari laguntzeko

presako neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuaren 8. artikuluan eta Urrutiko Lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege-dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarrian. Ondorio horietarako, kasu horretan badaude, subjektu pasiboek azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege-dekretu honek indarra hartu aurretik jasanarazi edo ordaindutako balio erantsiaren gaineko zergaren zuzenketa eginen dute, zergaren araudiaren arabera.

Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, neurri hori arautu zen apirilaren 29ko 4/2020 Foru Lege-dekretuan, Koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari erantzuteko presako neurriak onesten dituen horretan, hirugarren xedapen gehigarrian, zehazki, bai eta abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuan ere, Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko ohiz kanpoko neurriak onesten dituen horretan, laugarren xedapen gehigarrian.

Halaber, aurreko guztiaren osagarri, aldi baterako jaisten da BEZaren zerga-tasa, ehuneko 21etik 4ra, maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) barne entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, hartzaileak lehenago aipatutakoez beste batzuk direnean.

Bestetik, Turismoaren sektoreari, ostalaritzari eta merkataritzari tributu arloan laguntzeko presako neurriei buruzko abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege-dekretuak ezartzen du BEZaren ehuneko 0ko zerga-tasa aplikatuko dela COVID-19aren in vitro diagnostikorako osasun produktuetan eta txertoetan, horren bidez laguntzeko espainiarrek txertoa har dezaten eta osasun bilakaeraren diagnostikoa egin dadin pandemia erabat desagertu arte. Zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie, orobat, produktu horiek garraiatu, biltegitatu eta banatzeko zerbitzuei, horien erabilera atxikiak dituen kostuak murrizteko eta zabalitzen direla bermatzeko. Subjektu pasiboan fakturazio sistemak egokitu behar ez izateko, eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira. Dena dela, ehuneko zero zerga-tasa aplikatuta ere, horrek ez du mugatzen eragiketa egiten duen subjektu pasiboak jasandako balio erantsiaren gaineko zergan kenkaria egiteko eskubidea. Aurrekoarekin batera, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekargurako tasa ere doitzen da.

Azkenik, araubide erraztuaren edukia estatuko araudira egokitzen da.

Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu denez, beharrezkoa da Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2021eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira, eta ondoren azaldu bezala gelditzen:

Bat. 37 artikulua. Bat. 1. Lehena. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Lehena. Hainbat substantzia edo gai, edozein jatorritakoak direla ere, baldin eta beren ezaugarri, aplikazio, osagai, prestaketa eta kontserbazio egoerarengatik, ohikotasun eta egokitasunez erabiltzen ahal badira pertsonen nahiz animalien elikaduran, Elikadura Kodean eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo daude honakoak:

a) Edari alkoholodunak.

Edari alkoholoduntzat hartzen da pertsonak irentsiz kontsumi dezaketen eta alkohol etilikoa duen likido oro.

b) Edari freskagarriak, azukre edo edulkoratzaille erantsiak dituzten zukuak eta gaseosak.

Zenbaki honen ondorioetarako, ez dira elikagaitzat hartuko ez tabakoa ez eta, entregatu, Europar Batasunaren barruan eskuratu, edo inportatu diren egoeran, pertsonak nahiz animaliek kontsumitzeko modukoak ez diren substantziak ere”.

Bi. 57.5 artikulua.

“5. Artikulu honetan aipatzen diren kenkariak egin dituzten enpresaburuek edo profesionalek ezin izanen dituzte nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren araubide berezian jarduerak sartu, jarduera horietan erabiltzen dituzten ondasun eta zerbitzuak eskuratzeagatik jasan edo ordaindu

baldin badituzte kenkariaren xede diren kuotak; debeku hori izanen dute jarduera horiek betetzean ondasunak entregatu edo zerbitzuak eman eta hirugarren urte naturala bukatu arte.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren aplikazioaren ondorioak izanen dira araubide berezi horri uko egiteak dituen berberak”.

Hiru. 68 artikulua.

“68. artikulua. Araubide erraztuaren edukia.

Bat. A) Araubide erraztuari atxikitako enpresaburuak edo profesionalak zehaztuko dute, araubide berezia aplikatzekoa zaion jarduera bakoitzeko, zein den balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan sortutako kuoten zenbatekoa eta baliokidetasun-errekarguarena, horretarako kontuan hartuz indizeak, moduluak eta gainerako parametroak, bai eta prozedura ere, tributuen arloko eskumena duen departamentuak ezartzen dituenak.

Sortutako kuoten zenbatekotik, aurreko paragrafoan aipatzen den horretatik, kentzen ahalko da enpresaburuak edo profesionalak araubide berezian sarturik daukan jarduerari atxikitako ondasun edo zerbitzuei dagozkien eragiketa arruntengatik jasan edo ordaintzen dituen kuoten zenbatekoa, VII. tituluko I. kapituluaren aurreikusitakoarekin bat. Nolanahi ere, horien kenkariak arau hauek bete beharko ditu:

a) Ez dira kengarriak izanen joan-etorrien edo bidaien, ostatu eta jatetxe zerbitzuengatik jasandako kuotak, baldin eta enpresaburu edo profesionalak lokal zehatz batean betetzen badu bere jarduera. Ondorio horietarako, lokal zehatza izanen da edozein eraikin, kenduta biltegiak, aparkalekuak edo jendearentzat itxirik dauden gordetegiak.

b) Jasan edo ordaindutako kuoten kenkaria soilik egiten ahalko da horiek zein urtetan jasan edo ordaindu direla ulertzen den, urte horretako azken zergaldiari dagokion aitorpen-likidazioan, eta, beraz, hurrengo urteetan aplikatzekoa izanen zaien tributua araubidea zein den ere, kenkaria ez da egiten ahalko ondorengo zergaldi batean.

c) Enpresaburuak edo profesionalak araubide berezi honetan jarduera bat baino gehiago sartuta baldin badauzka, horietan batera erabili beharreko ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen direnean, haietako bakoitzean kendu beharreko kuota izanen da egiazko erabileraren araberako hainbanaketaren emaitza. Prozedura hori erabiltzerik ez badago, jarduera guztiei zati berdina egotziko zaie.

d) Kenkariaren xede izaten ahalko dira, halaber, foru lege honen 75. artikuluan aipatzen diren nekazaritzako konpentsazioak, enpresaburuak edo profesionalak ordaintzen dituztenak nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari atxikita dauden enpresaburuak ondasunak edo zerbitzuak erostegatik.

e) Horrez gain, enpresaburuak edo profesionalak eskubidea izanen dute, araubide berezi honetan sartuta dituzten jarduerari dagokienez, betiere, apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den kuota sortuaren ehuneko 1 kentzeko, justifikatzen zailak diren jasandako kuoten kontzeptuan.

B) Aurreko letran xedatutakoaren emaitza den zenbatekoari gehituko zaizkio eragiketa hauengatik sortutako kuotak:

1. Europar Batasunaren barruko ondasun eskurapenak.

2. Foru lege honen 31.1. Bigarrena artikuluan aipatzen diren eragiketak.

3. Aktibo finko materialen entregak eta aktibo finko immaterialen eskualdatzeak.

C) Aurreko bi letren emaitzatik kenduko da aktibo finkoen eskurapen edo inportazioagatik jasan edo ordaindutako kuoten zenbatekoa; aktibo finkotzat hartzen dira ibilgetuko elementuak eta, bereziki, erosteko aukera duten finantza errentamenduko kontratuek baliatuz edukitakoak, erosteko aukera loteslea izan nahiz ez.

Kenkari hori VII. tituluko I. kapituluaren arabera egingen da. Halere, subjektu pasiboak ekitaldiko azken zergaldiko aitorpen-likidazioan likidatzen dituen aktibo finkoen Europar Batasunaren barruko eskurapenei dagozkien kuotak, edo aktibo horien eskurapenei dagozkienak, subjektu pasiboren inbertsioa tarteko, kuota horien kenkaria ezin izanen da egin kuotak likidatzeko egiten den aitorpen-likidazioa baino lehenagoko batean.

D) Enpresaburuak edo profesionalak araubide berezi honetan sartuta dituen jardueretan erabiltzeko diren ondasunen inportazioei dagozkien zergaren likidazioa ondasunen inportazioen likidaziorako ezarritako arau orokorren arabera egingen da.

Bi. Balio erantsiaren gaineko zergaren zeharkako zenbatespenean, kontuan hartuko dira, lehenetsunez, araubide errazturako ezarritako indizeak, moduluak eta gainerako parametroak, araubide erraztuari uko egin dioten subjektu pasiboak direnean.

Hiru. Aurreko lehen apartatuan aipatzen diren indize edo moduluen omisioa edo faltasutzea egiten duten subjektu pasiboak ordaindu beharko

dituzte araubide erraztua aplikatuz ateratzen diren tributu kuota osoak, bidezkoak diren zehapenak eta berandutze-interesak gehituta.

Lau. Erregelamenduz arautuko da araubide erraztu hori eta zehaztuko dira araubide horri atxikitako subjektu pasiboek bete beharreko baldintza formalak eta erregistrokoak.

Bost. Araubide erraztu bereziari atxikitako subjektu pasiboak balio erantsiaren gaineko zergari lotutako beste jarduera enpresarial edo profesionalik egiten badu, araubide bereziari lotutakoek jarduera ekonomikoaren sektore bereziaren izaera izanzen dute kasu guztietan”.

Lehen xedapen gehigarria. Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, aplikatu beharrekoa COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunen entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan.

Ondorioak izanik 2020ko azaroaren 1etik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2021eko apirilaren 30era artekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko da foru lege-dekretu honen eranskinean zehaztutako ondasunen entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, baldin eta horien hartzaileak eskubide publikoko entitateak, klinikak edo ospitaleak badira, edo izaera sozialeko entitate pribatuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.3 artikulua aipatzen dituenak. Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsei gisa dokumentatuko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. Balio erantsiaren zergaren ehuneko 4ko tasa aplikatzea maskaren entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan.

Ondorioak izanik 2020ko azaroaren 19tik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2021eko abenduaren 31ra artekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko tasa aplikatuko da maskara kirurgikoen (erabili eta botatzekoak) entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan; horiek denak aipatzen dira Medikamentuen Prezioen arloko Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Akordioan, publikoarentzako salmentarako gehieneko prezioak berrikusten dituen horretan, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Bermeei eta Arrazoizko Erabilerari buruzko Legearen testu bateginaren 94.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz. Testu bategina uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi, eta Osasun Sistema Nazionalaren eta Farmaziaren Zerbitzu Erkideen Zorrorako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko

azaroaren 13ko Ebazpenaren bidez eman zen argitara.

Hirugarren xedapen gehigarria. Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, SARS-CoV-2aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren zenbait ondasun eta zerbitzuren entregetan, inportazioetan eta Europar Batasunaren barruko eskurapenetan aplikatu beharrekoa, bai eta baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren ondorioetarako ere.

1. Ondorioak izanik 2020ko abenduaren 24tik aurrera, eta indarraldia, berriz, 2022ko abenduaren 31ra artekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko da honakoetan:

a) SARS-CoV-2aren in vitro diagnostikoa egiteko osasun produktuen entregak, inportazioak eta Europar Batasunaren barruko eskurapenak; baldin eta bat badatoz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko urriaren 27ko 98/79/EE Zuzentarauan (in vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa) edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko apirilaren 5eko 2017/746 (EB) Erregelamenduan (in vitro diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa) ezarritako baldintzekin. Azken erregelamendu horren bidez indargabetu ziren Batzordearen 98/79/EE Zuzentaraua eta 2010/227/EB Erabakia eta irailaren 29ko 1662/2000 Errege Dekretua, -in vitro- diagnostikoetarako osasun produktuei buruzkoak.

b) SARS-CoV-2aren kontra Europako Batzordeak baimendutako txertoen entregak.

c) Aurreko a) eta b) letretan aurreikusten diren entregekin, inportazioekin eta Europar Batasunaren barruko eskurapenekin lotutako garraio, biltegitarte eta banaketarako zerbitzu prestazioak.

Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsei gisa dokumentatuko dira.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den denboran bertan aipatzen diren entregetan aplikatuko den baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0koa izan da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 13an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

ERANSKINA

Lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
1	Osasun produktuak.	Zainketa intentsibo eta azpi-intentsiboetarako arnagailuak.	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako tresnak) Fluxu bereizleak.	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiarako beste tresna batzuk, oxigeno dendarak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintz bidezko oxigenazioa.	ex 9019 20 00
2	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak.	- Kanpo nutriziorako ponpa peristaltikoak - Sendagaien infusiorako ponpak - Hurrupatze ponpak.	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze zundak.	ex 9018 90 50
4	Hodiak.	Hodi endotrakealak;.	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak.	ex 9019 20 00 ex 3917 21 10 a ex 3917 39 00
5	Kaskoak.	Aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileerako CPAP/NIV kaskoak.	ex 9019 20 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileerako maskarak (NIV).	Aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak, aireztapen ez-inbaditzaileerako.	ex 9019 20 00
7	Hurrupatze sistemak/makinak.	Hurrupatze sistemak.	ex 9019 20 00
		Hurrupatze elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorrak.	- Intubazio kitak - Aiztur laparoskopikoak.	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskularrerako kitak.	ex 9018 90 84
11	Monitorizazio estazioak - Pazienteak monitorizatzeko tresnak - Elektrodiagnostikorako tresnak.	Monitorizaziorako estazio zentralak, zainketa intentsiboetarako Pultsu oximetroak.	ex 9018 90 ex 9018 19
		- Pazienteak monitorizatzeko gailuak - Elektrodiagnostikorako tresnak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	- Aurpegiko maskarak, oihalezkoak, iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoki gabekoak, barne direla maskara kirurgikoak eta ehundu gabeko ehun-materialez fabrikaturiko aurpegiko maskarak, erabili eta botatzekoak. - Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas maskarak, agente biologikoen aurka babesteko iragazki aldagarriak edo pieza mekanikoak dituztenak. Hemen sartzen dira begiak ere babesten dituzten maskarak edo aurpegiko ezkutak.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00
		Gomazko beste eskularru batzuk.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak.	ex 6116 10
		Ehunezko eskularruak, puntuzkoak ez direnak.	ex 6216 00
17	Aurpegirako babesak.	- Aurpegirako babesak, erabili eta botatzekoak nahiz berrerabilgarriak - Aurpegirako babesak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babeserako betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90
19	Lan jantziak Mantal iragazgaitzak - askotarikoak - neurri desberdinak Erabilera kirurgiko/medikorako babes jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, barne daudela inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Erabilera anitzeko arropa (barne daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		Puntuzko ehunez egindako jantziak, 5903, 5906 edo 5907 partidetakoak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Puntuzko ehunez egindako beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgiko/medikorako jantziak, feltrozkoak edo ehundu gabeko oihalezkoak, izan nahiz ez inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Barne daude ehundu gabeko materialezko jantziak («spun-bonded»).	ex 6210 10
		Babeserako beste jantzi batzuk, kautxuztaturiko ehunez egindakoak, edo inpregnatuak, estalkidunak, gaineztatuak edo laminatuak (59.03, 59.06 edo 59.07 partidetako ehunak).	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoan estalkiak/galtzak.		ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Txanoak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak.	ex 6505 00 90
		Bestelako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuak/estuak nahiz ez.	ex 6506

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
22	Termometroak.	Likidodun termometroak, zuzenean irakurtzekoak.	ex 9025 11 20
		Termometro digitalak, edo termometro infragorriak, neurketa kopetan egitekoak.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboaia.	Xaboiak eta eskuak garbitzeko prestakinak eta produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboaia).	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
		Xaboaia eta produktu organiko tentsioaktiboak Xaboaia beste forma batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboiak bestelakoak) - Katioi-agentekak.	ex 3402 12
		Produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak azala garbitzeko, likidoak edo krema gisakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboidunak edo ez.	ex 3401 30 00
24	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	ex 8479 89 97
25	Disoluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren %80 edo gehiago denean.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizatua, kontzentrazioa edozein dela ere.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bol. %80 baino gutxiago denean.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa, %3an, litrotan. Hidrogeno peroxidoa, prestakin desinfektatzaileetan gaineratua gainazalak garbitzeko.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa, ontziratu gabe.	
		Eskuen desinfektatzailea.	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	
27	Larrialdiko garraiorako tresnak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Ohatilak eta orgatxoak, ospitale edo klinika barnean pazienteak eramateko.	ex 9402 90 00
28	ARN erazugailuak.	ARN erazugailuak.	9027 80
29	COVID-19aren probak egiteko kitak / Proba diagnostikoetan erabilitako tresnak eta gailuak.	- Koronabirusaren proba diagnostikoa egiteko kitak - Diagnostikorako errektiboak, erreakzio immunologikoetan oinarrituak - Isipuen ekipoak eta birusa garraiatzeko bitartekoak.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Diagnostikorako errektiboak, polimerasaren kate-erreakzioan (PCR) oinarrituak (azido nukleikoaren proba).	ex 3822 00 00
		In vitro diagnostikorako laborategi klinikoetan erabiltzen diren tresnak.	ex 9027 80 80
		Laginak hartzeko kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipuuak.	Guata, gaza, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko artikuluak.	ex 3005 90 10 ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak jartzeko materiala.	Ospitaleetako oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpadendak.	ex 3926 90 97

	Produktuaren izena	Ondasunaren/produktuaren deskripzioa	NC kodea
32	Sendagaiak.	- Remdesivir - Dexametasona.	ex 2934 99 90 ex 2937 22 00 ex 3003 39 00 ex 3003 90 00 ex 3004 32 00 ex 3004 90 00
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1- propanola (alkohol propiliko) eta 2 - propanola (alkohol isopropiliko).	1- propanola (alkohol propiliko) eta 2 - propanola (alkohol isopropiliko).	ex 2905 12 00
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, bestelako peroxidoak, zetona peroxidoak.	ex 2909
36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz eratorriak).	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salizilikoa.	Azido salizilikoa eta gatz eratorriak.	ex 2918 21 00
38	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak.	Behin erabiltzeko oihalak, 5603 partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen diren horietakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak nahiz ez.	Ehundu gabeko oihalak, izan inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo laminatuak nahiz ez.	ex 5603 11 10 a ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoa, medikoa edo higienikoa duten artikuluak, txikizkako salmentakoak ez direnak.	Paperezko ohe-estalkiak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, edo higienikoa edo farmazeutikoa, kalibraturik eta graduaturik egon nahiz ez.	ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, Thorpe hodiko fluxu-neurgailua oxigenoa emateko, 0-15 L/min.	Thorpe hodiko fluxu-neurgailuak osagai hauek dauzka: sarrera- eta irteera-atakak, erregulagailua, balbula eta neurketa-hodi koniko gardena. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluximetro (fluxu-neurgailu) arruntaren bertsioak (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatukoa, fluxu-maila espezifikotarako egokiak.	ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81
43	CO2aren detektagailu kolorimetricoa, arnasa botatzekoa.	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina. Behin bakarrik erabiltzekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak.	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea. Biribilkietan Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3701 10 00 ex 3702 10 00

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024).

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2020ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez, Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024) igorri dio Nafarroako Parlamentuari, iritzia eman dezan.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024) izapidetzeko onartzea (10-20/CDP-00010).

2. Xedatzea hari buruzko erabakia Eskubide Sozialetako Batzordeak hartuko duela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(Oharra: Aipatu plana Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daiteke: <https://www.parlamentodenavarra.es/es/contenido/documentos>).